

D DOKUMENTUA

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERKETA

ZALDIBIAko HAPOaren URTESABEL-AZPI 2.sektoreko PLAN PARTZIALA
HASIERAKO ONARPENA

D DOKUMENTUA

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO AZTERLANA

Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlan honek planteatutako hirigintza-proposamenen bideragarritasuna ezagutzeko zehaztapenak jasotzen ditu, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 62. artikulua betez.

Plan Partzial honetan argi dago ezinezkoa dela bideragarritasun ekonomikoa ebaluatzea, normalean garatzen den metodoari dagokionez; izan ere, dokumentu honen helburua da Zaldibiako udalerriko eremu batean egoera guztiz anormala erregularizatzea.

Lurzoruen balioaz haratago, gaur egun bideraezintasun nabarmena dago, eremuko eraikin guztiak antolamendutik kanpo geratzen baitira, nahiz eta eremuan ezarritako jarduerak normaltasunez garatzen jarraitu.

Hau da, dokumentu honen asmoa da Zaldibiako udalerria segurtasun juridikorik gabeko egoera batetik babestea, eta horrek berekin ekar lezake garatzen diren jardueren gainbehera, ezin direlako hobetu, lagundu edo finantzatu, eraikinak antolamenduz kanpo daudelako. Era berean, premiazkoa da egoera hori lehengoratzeko, udalerraren eguneroko bizitzan eragina izan dezakeen egoera batera eramango gaituen eremuaren degradazioa saihesteko.

Memorian jasotzen den bezala, dokumentu honek lurzoruen kalifikazioa eta hirigintza-eraikigarritasunak jasotzen ditu, egungo egoeran.

Eremuaren urbanizazioa egoera onean dago eta funtzionamenduan dauden zerbitzu-azpiegitura guztiak barne hartzen ditu.

Hala, urbanizazio-proiektu bat egingo da. Proiektu horrek, *Ingurumen-Txosten Estrategikoan* jasotako ingurumen-zehaztapenak bilduko ditu, Zaldibia ibaiaren erribera lehengoratzeko estrategiarekin eta bide-eremuetan egin beharreko ajuste txikiekin, hala nola lineak pintatzea eta erremate batzuk egitea.

Inbertsio hori ez da oso handia, eta udalerriko berdeguneak nabarmen hobetuko dira.

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANZARIOAREN SINTESIA.

Horregatik guztiagatik, frogatutzat jotzen da jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa; izan ere, egungo egoeraren ondorioz, aipatutako lurzoruak segurtasun-gabeziako egoeran daude, eta dokumentu hau onartuta konponduko litzateke egoera hori.

2023ko abendua
Amaia Albeniz Goikoetxea
Ainhoa Guerras Alfonso
Hiri.Dunak estudioa